

# Garbizalekeriak

Garbizaleak gara. Ez dugu damurik. Baina ez dugu garbizalegiak izan nahi. Ez genuke garbizalekeria erori nahi. Galgari eta neurri-ri eustea ez da erraza. Erabaterko edo besteko garbizalekeria gaitzak jo gabeko euskaldunik gutxi izango da, noski.

Euskara erdal hitzez josia zela ohartu ziren Aranaren garaian. Euskara garbitzeari ekin zioten. Premiari ere bazuen, gure irizirako. Baina gehiegizko garbitua eta soildua eman zioten. Ia-ia hizkuntza berri bat sortu zuten. Garbizalekeria gaitzak jo ez zuten idazle gutxi izan zen garai hartan. Erdal sustraiko euskal hitz jatorren orden euskarazko hitz berri arrotzak sortzeko zer ez zuten asmatu?

Sebero Altube izan zen hitz berrien garbizalekerian erori ez zen idazletako bat. Hitzet baino garrantzi gehiago ematen zion joskerari, euskararen moldeari.

Arrazoi osoa zuen. «Da etorri txanburua» baino askoz ere euskaldunagoa da «erretora etorri da». Bere txanburu eta gutzi aurrenko esaldia erdaraka beldurgarria da. Bigarrena, berriz, euskara jatorra bere erretore eta gutzi.

Zenbait garbizalek hitzen garbitasunari begiratzen dio, ez joskeraren jatorrasunari. Bere kezka gutzia hitz garbiak erabiltzea da. Kontuz sar itzazu erdal hitzak! Euskal joskerarik jatorrena erabiltzen baduzu ere ez dizu barkatuko. Idazlan osoa erdal-moldean burutua baldin bada ere ez zaio axolarik.

Hitzek beren garrantzia badute, noski. Hizkuntza guztiak zain-tzen dute hitzegia. Baina edozein hizkuntzatan ezker garrantzirik baldin badu joskerak du, hizkuntzaren moldeak. Are gehiago euskarari.

Ezertan bada eta honetan izan behar dugu garbizale. Hitzetan baino garbizaleagoak, noski. Ez gaitzen, ordean, garbizalekerian eror. Zorionez, hitzen garbizalekeria gaitzak jo ez zuten Altube, agian, joskeraren garbizalekeriak jo zuten. Eta zorionez. Garbizale asko ez bait zen honetaz arduratu. Izan ere erdalkeriak ez zituen euskararen adaskak bakarrik ahuldu, baita enborra bera ere.

Hlere, zenbait aldir, joskera jator-jatorrari eutsi nahi izatea beste garbizalekeria bat gerta daiteke. Honetan ere ezin daitezke beti lege guztiak zuzen eta zintzo bete. Joskeraren legeak ere ezin daitezke beti estuegi har. Zentzuz jokatu behar dugu, noski.

Galdu ziren euskal hitz zahar guztiak piztu eta eraberritu nahi izatea beste garbizalekeria bat da gure ustez. Piztu behar dira. Baina ez denak, are gutxiago denak batean. Gaztelaniazko edo frantsesko molde hartu duten erdal hitz guztiak, euskaraz idazterakoan, beren jatorrizko hizkuntzan erabili nahi izatea beste garbizalekeria bat bilaka daiteke. Baita hitzen sustraia gehiegi nabarmen eraztea ere. Sustraizaleen garbizalekeria ere gogaikarria da.

Euskararen lege guztiak arlo eta maila guztietan bete nahi izatea ere beste garbizalekeria bat da. Ikasientzat eta ez-ikasientzat, haundiantzat eta txikiarentzat ezin daiteke berdin idatz. Eskola-liburuetan eta poesian, bertsoetan eta nobelari ezin daitezke hizkuntza berdin erabil. Zertan ari garen eta noizentzat ari garen gogoan izan behar dugu. Hori kontutan ez izatea garbizalekeria bat daiteke.

Garbizaleak gara. Denean izan behar genuke ahal den neurri-ri no garbizale. Baina gehiegizko garbizalekeria itsumena da. Hitz berrien garbizalekeria arbulatzen dugu eta hitz zaharren garbizalekerian erortzen gara. Hitzen mordolokeria salatzen dugun bitartean joskera mordolooan zikindurik gara. Eta alderantziz.

# Berriro ere txinpantzeari buruz

Orain dela urtebetsu, eta Fleming-en artikulu mamitsua oinarri harturik (Psychologie, 1974-V) txinpantzearen mintzamenaz izkiriari nuen artikulu bat.

Gaur Jane Goodall-en liburu baten irakurrerak («Les Chimpanzés et Moi», Coll. J'ai lu, 1971) berriro ere txinpantzeaz le- ro hauek izkiriartzera bultzatzen nau.

Jane Goodall-en iker-lana ezaguna da jadanik; eta, sail honetan espezialista izan gabe ere, zenbaitek bederen badakike hamabost urte honetan Gombe Stream-en, Kenya-ko oihan batean, emakume jakintsuak zeharo beren gisara eta askatasun osoan bizi diren txinpantzeaz egin duen lanaren berri.

Hots, Jane Goodall-en aurkikundeok garrantzi GUZTIZKOA izan dezakete antropologiari buruz, eta ondorio ezin pisuagok erak dituzakete heziketaren mailan, politikaren mailan, eta beste anitz sailetan.

—00—

Jane Goodall-en aurkikunde guztiak lerro labur batzuetara biltzea, noski, ezinezkoa da. Hona hemen, dena dela, laburki, go-goeta-gai nagusi batzuk:

- 1.—Txinpantzeak, oihanean bizi delarik, eta hortaz giza-eragirik gabe ere, berez prestatzen ditu tresnak: termitak zuloetan harrapatzeko, ura xukatze-ko, zauriak zaintzeko, eta abar.
- 2.—Txinpantze-taldeetan ez dago inolako «demokraziarik». Indar-taxuketara hutsa dago taldearen barruan; eta memento bakoitzean burruka-bidez erabakia, aginte edo errespetu postu berezi bakar bat dagokio tximu bakoitzari, denboran barrena alda-garri.
- 3.—Txinpantze-arren artean adiskidetasun-kasok maiz gertatzen badira ere, askoz ere bakanago gertatzen da gauza bera txinpantze-emeen artean. Hauek «jeloskor»-ago dira haiek baino.
- 4.—Intzestoa (ama-semeariki-ko setsu-harremanak, eman deza-gun), eta Freud-en teoriaren kontra oker ez banago, ez da txinpantzeen artean gertatzen. Era berean, eta beste batzuek izkiri-ari izan dutenaren aurka, txinpantzeen artean homosetsutasunik ez da ezagutzen.
- 5.—Txinpantzeak gazte direla-rik, askoz ere zakarrago eta indartzaleago dira arrak, emeak baino: «les bébés mâles ont tendance à jouer plus rudement que les femelles, et souvent leur style de jeu est plus agressif», (218).
- 6.—Maitasuna ez da iraunko-rra, ezta emearen edo arraren barkatasunean finkatua: emea gertu dagoelarik, ar guztiak jo-tzen dute elkarren segidan, eta taldearen aginte-lerrokada edo herroka hertsiki errespetatuz.
- 7.—Aitatasunaren arrastorik ez dago sendimenduen mailan: umea amarena da batetik, eta taldearena bestetik. Aitzak ez du famili-erantzukizunik ezagutzen; baina amak bai.
- 8.—Txinpantze-talde bakoitza-ri lurralde-zabalera zehatz bat

dagokio. Lurralde horren barruan bertako txinpantzeak oso herri-akorak eta burrukalariak dira kanpotarrek; baina beren lu-rraldetik kanpora ez dute horre-la jokatzen.

9.—Urteko eurite luzea hasten denean, eta Jane Goodall-ek hiru aldiz ikusia duenez, taldeko txinpantze arrek (emeak eta umeak begira gelditzen direlarik), «pratiko»-tasunik batere ez duen benetako dantza magiko bat egi-ten dute (75-76 orr.).

10.—Luzaz elkar ikusi gabe egonak diren txinpantzeak, bene-tako harrerak-keinuak egiten di-zkiote elkarri: besarkada, musu, ikutze, eta abar.

—00—

Artikulu hau ez luzatzekotan, eta nor bere aldetik ondorioak ateratzea bezalakorik ez dagoela sinetsirik, beren horretan utziko ditut hamar puntu horiek, irakurlearentzako azter-gai. Ene-ustez, ondorio EZIN INPORTANTE-AGOAK atera daitezke bakoitze-tik; eta, zozokeriatan eta irtea-rik gabeko bidetan barrena abia-tu ez bagara, atera egin behar dira.

Adibide bakar bat ematekotan, bijoa hau: zakarreriarri edo in-

dar-zaletasunari dagokion alde-tik txinpantze-kumeetan beretan arren eta emeen arteko desber-dintasuna ageri baldin bada, mu-tulen eta nesken arteko izaera-desberdintasuna ez da, FUN-TSEAN BEDEREN, heziketa-kontu gaindigarri bat, gaintitu ezine-zko biologi-oinarri bat baizik. Ez ditu kulturak desberdintzen mu-tilak eta neskatilak, biologiak baizik.

Gizonaren harrokeria, azkene-korik, apaltzeko tenorega heldu dela dirudi... Alajainkoa! Ez gara horren gauza aparta! Ezen Ja-ne Goodall-en hitz berberaz esa-teko: «Dans les rapports sociaux entre chimpanzés, beaucoup de choses en vérité nous rappellent une partie de notre propre com- portement. Plus peut-être que certains d'entre nous ne se sou- cieraient de l'admettre...».

Funtsezko ahaidetasun hori, ordea, ez da talde-mailako joka-bideetan bakarrik agiri.

Zeren, zer pentsatu behar du- gu txinpantzearen psikologiaz, ispilu bat erakutsi, eta han age- rten den irudi hura (340 orro.), gor-mutuen hizkera baliatuz, «be- re burua» edo «bera» hobeki besterik ez dela ulertzen duen abere argiaz?

LARRESORO

# Arrastoen zuzen ote gabilta?

Herri baten berezitasun garran-tzitsuenetakoa hizkuntza dela esa- ten badugu, ados izango zarete. Baita, ondo mintza eta idazten ja-kin artean, hizkuntza bat ez daki- gule ere. Bestalde, hizkuntza gu- ziek dituzten gramatika eta doinu bereziak. Edozein hizkuntza ikasten duenari, bere nazionalitateko doinu- ematen dion artean, ez duela ondo egiten esan ohi diogu. Hau da za- baldu nahi dugun gaia.

Denok dakiguna da gure Herrian euskerak azkeneko mende honetan egin duen atzerakada. Batez ere, hiri handi eta industrializatuak era- bat erdara hartu dute beren egu- neroko harremanetarako. Ez goaz orain honen urratsak edo sustralak aztertzea.

Egoera hau hala izanik, gure ustez badugu etorkizunari irrifare itxaropentsu batetaz begiratzeko arrazoi. Ikus, mende honetan atze- rakada handia egin badugu, az- keneko hogeai urteotan egin dugun aurrerapena.

Ikastolei zor diegu, batez ere, berpizkunde hau. Gipuzkoa eta Biz- kaian esan dezakegu ez dagoela herri-rik ikastolarik gabe, nahiz eta gehiagoren beharrik izan. Lehen esan dugun hiri handi horietan, eu- skara ia galdua dagoen horietan, ikastolan eta bere inguruan dabi- tzen artean, euskerak ikasi berri edo erdi-ikasi bat, egiten da. Hau, ona da, noski. Gainera, behar bada, jos- kera eta gramatika aldetik beste zenbait euskaldun zaharrek baino hobeto erabiliko dute. Baina eska- lan ikasitako gramatika eta gainon- tze-ko gaiak, ez dute euskerak duen doinu berez ta bizi horrekin horri- tzerik, lehen esan dugunagatik. Hau da, kalean ez duelako herriak egi- ten.

Euskal Herri-rik et ibili garenek maiz entzun dugu, eta esan digu-

te, erdarari doinu euskalduna ema- ten diogula. Hau bost axola zaigu. Euskarari zenbait tokitan ematen zaion erdal, oso eralduna, bai; ho- rrek badu garrantzia. Adibidez, Do- nosita eta inguruko haurrak, eta hain haurrak ez diren batzu ere!, hau zuzentzeko, Santiyo-Santana in- guruko egun baten euariaren premian daude. Zaila egiten zaitzu idatziaz hau garbi utzea; hala eta guztiaz nondik goazen ikus daitekeela us- te dugu. Beste alde, ez genuke ho- nek in nor samindu nahi, noski. Zu- zentzen lagundu baizik. Eta ikusten diren hutsuneak edo okerrak esa- tea laguntzeko dela uste dugu.

Pentsa daiteke arazo hau ande- rño eta irakasleek zuzendu behar du- dela. Behar bada, bai, askotan gain- dituak, kutsatuak ezekiz, gelditzen dira hainbeste haur portxatuz. Ho- rregatik, hasera batetan batipat es- pezialisten lana dela, egin daite- keena gainera, uste dugu.

Pedagogia berri eta bizi baten be- harrean dagoela ikastola, askotan entzun dugu. Hori lantzen, asko edo dabilzala ere bai. Gure Herrian ba- dira abeslari eta musikari itoiak. Ez ahal lukete talde horietako ba- tetan sarterrik, metodologia bat zu- zentzera haurrek euskerak osoki hi- ztegin dezaten?

Garbi dago, euskerak idatzia ba- tuden bezala, ia behintzat, ez dai- tekeela doinau batu. Euskerak do- inu desberdintasan handiak ditu le- ku batzuetatik besteetara, eta abe- rastu egiten dute. Askü dugu, zube- rotarrei, nafarrei, galderiarrei edo arrantzaleei, esate baterako, entzu- tea.

Baina gutxi edo gehiago, denak doinu euskaldunak dira.

Guk nahi duguna, toki batzuetan dagoen doinu erdaldun hingugarri hori kentzea da. Amets egitea ote?

AZEITUNEROAK

**ARGIA**

JABEA:  
Nafarroa, Kantauri eta A-  
rgoiko Kaputxiak.  
Burlada, Kale Nagusia, 50-1  
Donostia, Okendo, 22  
Telf. 41-95-88

Ondezkarla: Kaletano Ezeiza  
Iturriza

ARPIDE SARIA:  
Barruan 400 pezeta  
Korreo bataune-  
tako herrietan 620 pezeta  
Atzerrietako bes-  
te herrietan 460 pezeta  
Airez Aldez surre-  
tik galdetu

Salmenta (ale  
bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkoka:  
«Gráficas Navasas»  
A. Adoain, 1. IRUIÑEA  
D. L.: -NA. 80-1963

